

LANTEGIA: MUNDUKO MUSIKA TRESNAK

1.- Deskribapena

Material oso sinpleekin munduko hainbat herrialdetako musika-tresnak egitean datza.

2.- Helburuak

- Zenbait material erabiltzea eta beren aukera artistikoak aztertzea.
- Lankidetzan ekoizpen artistikoak egitea.
- Hainbat herrialdetako musika-tresnen bidez adierazpen kultural eta artistiko desberdinak ezagutzea.
- Aniztasunak dakarren aberastasuna eta beste kultura eta adierazpen-forma batzuk errespetatzeko beharra ulertzea.

3.- Partaideak

Talde handi bat.

Adina: 8 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Tresnak egiteko behar direnak. Birziklaturiko materialak erabil daitezke, birziklatzearen garrantzia erakusteko.

6.- Garapena

Eranskinean azaltzen diren materialak erabiliz, eta dinamizatzailaren argibideei jarraituz, haurrek Brasilgo sonailuak, kaskabilo indiarrak eta abar egingo dituzte.

Jarduera honen bidez, tresnen jatorrizko herrialdeak azter daitezke: haiek mapan zehaztu; bertako klima, hizkuntza, ohiturak, jolasak eta biztanleak nolakoak diren aztertu, etab.

7.- Ebaluazioa

Musika-tresna horiek ezagutzen al zenituzten? Beste tresnaren bat ezagutzen al duzue? Musika-tresna asko daude, munduan kultura asko daudelako. Zein kultura ezagutzen dituzue gureaz gain? Zer iruditzen zaizue kultura-aniztasuna? Beste kulturek zerbait ematen al digute? Nola sentiarazten zaituzte gure kulturaz gain beste batzuk ere badaudela jakiteak?

8.- Iturria

ALBOAN. *Munduko Hiritarrok. Eskubideak eta betebeharrak.* Lehen hezkuntza. Arte-hezkuntza.

Fitxa 1.1.

Ikus dezagun zer-nolako musika tresnak dituzten beste herri batzuetan. Tresna horiek egitea oso erraza eta dibertigarria da. Gainera gero, jotzen ikas dezakegu.

Kaxoi afroperuarra

Etxeko kaxoi sinple bat tresna zoragarria da. Gainean jesartze-ko moduko tamainako tiradera izatea garrantzitsua da; alde hutsa gure atzeko aldean geratuko da eta tiraderaren hondoa justu gure eskuen parean.

Soinuak eskuek eraginda sortuko dira. Soinuak ezberdinak izango dira tiraderaren zein aldetan jotzen dugun kontuan izanik.



Marakak

Herria: Marfileko Kosta

Egin daiteke hazi edo indabez betetako kutxa batekin, baita arrozaz betetako freskagarri latekin ere.



Sonailuak

Herria: Brasil – Amazoniako oihana


Objektu ezberdinetan zuloak eginez gauza daitezke (intxaur oskol hutsak, plastiko edo egur zatiak,...). Ondoren, zuloetatik hariak pasatu eta egurrezko edo metalezko aro batera lotzen ditugu.

Harien luzera ezberdina izan daiteke. Almeja oskolekin soinua oso polita da.

Guero afrikarra – peruano

Herria: Perú

Kanabera zati bati edo egurrezko hodi bati gainean egurrezko makilatxo batekin igurztean soinua eragingo duten koska batzuk egingo zaizkio.



Andeetako Antarak

Herria: Bolivia

4 edo 5 kanabera txiki hartu eta bata besteari lotzen zaizkio. Ostean, eskailera eran moztuko dira. Igurztean kanabera bakoitzak soinu ezberdina sortuko du.

Khatac txintxarri dantza

Herria: India

Oina bakoitzaren inguruan soka txiki bat lotuko dugu, non soka honek bi makiltxo izango ditu lotuta. Hankak mugitzean soinua sortuko da.



Afrikar gortina

Herria: Madagaskar

Egurrezko pertxa batetik metalezko giltza ugari jarri behar dira batera zintzilik. Musika egin daiteke metalezko barrak arin edo astiro pasatuz.

Pentsatzeko galdera batzuk...

- Inoiz entzun ala ikusi al zenuen musika tresna horietakoren bat? Besteren bat ezagutzen duzue?
- Musika tresna ezberdinak daude anitz kultura desberdin ere badelako. Zuenaz gain, zein beste kultura ezagutzen duzue?
- Zer deritzozu kultura aniztasunari?
- Zer lortzen dugu edo zer ekarpen egiten digute kultura horiek?
- Nola jokatu behar dugu gurea ez den beste kultura ezberdinen aurrean?